

# Prentsa oharra

## **Europar Batasunaren 'Mies van der Rohe'-k saritutako lana Aste Santuan zehar ikusgai egongo da Euskadiko Arkitektura Institutuan**



2019|04|17

> Bordelen dauden hiru eraikin handi batzuetan egindako eraldaketak, Lacaton&Vassal estudioak, Frédéric Druot eta Christophe Hutin-ekin batera egindakoak eta pasa den astean sarituak izan zirenak, 'Tabula non rasa' erakusketaren parte dira. Lana doainik ikus daiteke jaiegunetan, goizez eta arratsaldean, Donostiako Santa Teresa komentuan.

'Tabula non rasa' erakusketa, Euskadiko Arkitektura Institutuan (EAI/IAE) ikusgai dagoena, Aste Santuan zehar bisitatu ahal da Donostian. Gainera, 2019ko 'Mies van der Rohe' sari ospetsuaren lan irabazlea, pasa den astean aitortua, bertan ikusi daiteke.

Erakusketak hiri-espazio zaharkituen bilakaera aldarrikatzen du, eraispena baztertuz. Bertan, ildo hori jarraitzen duten hiru lan berpizten dira eskala ezberdinetatik: etxea (AGPS architects, Jenny Rodenhouse estatubatuarrarekin, Californiatik), auzoa (Lacaton & Vassal, Druot, Huti, Bordeletik) eta hiria (ETH MAS Urban Design, Zurich-etik).

**Horiek guztiek abiapuntu bera dute: inoiz ez da zerotik hasten, bakoitzaren interbentzioaren aurretik beti badagoelako zerbait. Zentzu horretan, arkitektura ez da inoiz guztiz berria izango, baizik eta beste zerbaiten eraldaketa.**

**‘Tabula non rasa’-ren atal nagusiak estudio frantziarrari eskeinita dago eta bere lanaren gakoak islatzen ditu. Gainera, aurreko astean Europar Batasunaren Arkitektura Garaikidearen Saria, ‘Mies van der Rohe’ deritzona, irabazi zuen lan horrek. Bordele hiri frantziarreko 60. hamarkadako hiru erakin handiren eraldaketan datza. Erakusketak eraikin horien urterik bikainenak heltzear daudela azpimarratzen du, eraldatzen badira, haien bizi-baldintzak hobetzen bada eta haien azalera zabaltzen bada.**

**Bordelen garatutako lanak Gand Parc-eko 530 etxebizitzaren azalera handitzea eta bizi-baldintzak hobetzea ahalbidetu zuen. Egongelak 20 metrotan zabaldu ziren, energia-kontsumoa %50 murriztu zen argi gehiago lortzean leihoen ordean beirate handiak ezarriz, eta eskuragarritasuna hobetu zen kanpo-igogailuekin. Gainera, 3,80 metro zabalera gehitu zen negu-lorategi eta balkoiak sortuz. Horrek guztiak ez zuen etxebizitzaren prezioa igo. Lanek auzokoen partaidetza sustatu zuten, haien etxebizitza uztera behartu gabe berrikuntzaren azkartasuna zela medio. Ondorioa: arkitektura berritzaile, sozialki erantzule eta jasangarriago bat.**

**‘Tabula non rasa’ ikusgai egongo da Donostiako Santa Teresa komentuan, doainik, uztailaren 14ra arte. Aste Santuan zehar hurrengo ordutegia izango du: 11etatik 14etara goizez eta 17etatik 20etara arratsaldean, ostegunetik astelehenera, biak barne.**

Informazio gehiago:  
Eduardo Ortiz de Arri  
(647 770052)